


**ADINEKOEN BATZORDE IRAUNKOR  
 SEKTORIALA**
**2015-02-03ko OSOKO BILKURAREN  
 AKTA**

Gasteizen, goian adierazitako egunean, Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala bildu da. Batzordeko buruak, Lide Amilibia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen zuzendariak, egin du bilerarako deia.

**BERTARATUTAKOAK**
**Eusko Jaurlaritzaren aldetik:**

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila: **Lide Amilibia Bergaretxe**, Gizarte Zerbitzuetako zuzendari eta Batzordeko burua.
- Osasun Saila: **Guillermo Viñegra**, Osasuneko sailburuordea.
- Etxebizitza Saila: **Miren Saratxaga**, Etxebizitza Plangintza eta Prozesu Eragileen zuzendaria.
- Emakunde: **Maite Santamaría**, Emakundeko teknikaria.

**Foru-aldundien aldetik:**

- Araba: **Paloma Aranceta**, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
- Bizkaia: **Sergio Murillo**, Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendari nagusia.
- Gipuzkoa: **Txelo Pérez**, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako zuzendari nagusia.

**ADINEKOEN BATZORDE IRAUNKOR  
 SEKTORIALA  
 COMISIÓN PERMANENTE  
 SECTORIAL DE PERSONAS MAYORES**
**ACTA DEL PLENO DE 03-02-2015**

En Vitoria-Gasteiz y en la fecha indicada, se reúne el Pleno de la Comisión Permanente Sectorial de Personas Mayores. La reunión es convocada por su presidenta, Lide Amilibia, directora de Servicios Sociales del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco.

**ASISTENTES**
**Por el Gobierno Vasco:**

- Dpto. de Empleo y Políticas Sociales: **Lide Amilibia Bergaretxe**, directora de Servicios Sociales y presidenta de la Comisión
- Dpto. de Salud: **Guillermo Viñegra**, viceconsejero de Salud
- Dpto. Vivienda: **Miren Saratxaga**, directora de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda
- Emakunde: **Maite Santamaría**, técnica de Emakunde

**Por las Diputaciones Forales:**

- Álava: **Paloma Aranceta**, directora de Servicios Sociales
- Bizkaia: **Sergio Murillo**, director general de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a la dependencia
- Gipuzkoa: **Txelo Pérez**, directora general de Atención a la Dependencia y a la Discapacidad.



**Udalen aldetik:**

- EUDEL: **Yolanda Díez**, Bilboko Udaleko zinegotzia.

**Gizarte-erakundeen aldetik:**

- Pentsiodunen eta erretiratuen Euskadiko elkarten federazioa (FEDERPEN): **Txema Odriozola**.

- NAGUSILAN, adinekoen gizarte-boluntariotza: **José Luis Elosua**.

- Alzheimerdunen Senideen Elkarten Euskadiko Federazioa: **Maribel Perea**.

**Erakunde profesionalen aldetik:**

- Psikologiako Elkargo Ofiziala: **Begoña Frutos**.

- Gizarte Laneko Elkargo Ofiziala: **Olatz Etxabe**.

**Gonbidatuak:**

-**Mayte Sancho** eta **Elena del Barrio**, Matia Gerontologia Institutua.

**Idazkaria: Josune Oyarbide**.

**EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK:**

- Las Cuatro Torres jubilatu eta pentsiodunen Arabako elkarte, Antonio González.

- Eudel: M. Carmen López de Ocariz, Donemiliagako Udaleko zinegotzia (Araba).

- Sendagileen Elkargo Ofiziala: Begoña Pablos.

-----  
Bilera goizeko 10:15ean hasi da, honako gai-zerrenda honekin:

**Por los Ayuntamientos:**

- EUDEL: **Yolanda Díez**, concejala del Ayuntamiento de Bilbao

**Por las organizaciones sociales:**

- Federación de las asociaciones de jubilados y pensionistas de Euskadi (FEDERPEN): **Txema Odriozola**

- NAGUSILAN, voluntariado social de personas mayores: **José Luis Elosua**

- Federación de asociaciones de Familiares de Enfermos de Alzheimer de Euskadi: **Maribel Perea**

**Por las organizaciones profesionales:**

- Colegio Oficial de Psicología: **Begoña Frutos**

- Colegio Oficial de Trabajo Social: **Olatz Etxabe**

**Personas invitadas:**

-**Mayte Sancho** y **Elena del Barrio**, de Matia Instituto Gerontológico.

**Secretaria: Josune Oyarbide**.

**EXCUSAN SU ASISTENCIA:**

- Asociación de jubilados y pensionistas de Álava "Las 4 torres", Antonio González

- Eudel: M<sup>a</sup> Carmen López de Ocariz, concejala del Ayuntamiento de San Millán (Álava)

- Colegio Oficial de Médicos: Begoña Pablos

-----  
La reunión da comienzo a las 10:15 h. de la mañana, con el siguiente



## GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bilkurako akta onartzea, 2014ko maiatzaren 26koa
- 2.- Zahartze Aktiboaren Indizea
- 3.- Zahartze Aktiborako Estrategia
- 4.- Euskadi Lagunkoia. 2015erako lan-plana
- 5.- Galde-eskeak

-----

Bileraren hasieran, Batzordeko buruak, Lide Amilibiak, bi gonbidatuak aurkeztu ditu (Matia Gerontologia Institutuko kide Mayte Sancho eta Elena del Barrio), gai-zerrendako 2. eta 3. puntuak zehatz-mehatz azal ditzaten; izan ere, aipatutako zentroa, Eusko Jaurlaritzarekin batera, zahartze aktiboarekin lotutako bi auzi horietan lan egiten ari da, baita Euskadi Lagunkoia programan ere.

### **1. puntua: Aurreko bilerako akta onartzea**

Aurreko saioko –2014.05.26– behin-behineko akta aho batez onartu da.

### **2. eta 3. puntuak: Zahartze Aktiboaren Indizea eta Zahartze Aktiborako Estrategia**

Buruak, Lide Amilibiak, bi puntuak estuki lotuta daudela adierazi du, eta labur aurkeztu ditu, ondoren Mayte Sanchok azal ditzan. Bigarrenari buruz (estrategia) jakinarazi duenez, aurreko bileran aipatu zuen zahartze aktiboaren «plana» terminoaren ordez «estrategia» erabiliko da, horrela errazagoa delako izapidetzea eta onartzea. **2015-2020 aldirako Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia** osatzeko, besteak beste, aurretik egindako zenbait azterketa kontuan hartu direla adierazi du; adibidez, «100

## ORDEN DEL DÍA

1. Aprobación del acta de la sesión anterior, del 26 de mayo de 2014.
- 2.- índice de Envejecimiento Activo
- 3.- Estrategia de Envejecimiento Activo
- 4.- Euskadi Lagunkoia. Plan de trabajo para 2015
- 5.- Ruegos y preguntas

-----

Al comienzo de la reunión, la presidenta de la Comisión, Lide Amilibia, presenta a las dos invitadas, Mayte Sancho y Elena del Barrio, de Matia Instituto Gerontológico, para que expongan con detalle los puntos 2 y 3 del orden del día, puesto que dicho centro está trabajando junto con el Gobierno Vasco, en esos dos asuntos referentes al envejecimiento activo, así como en el programa Euskadi Lagunkoia.

### **Punto 1: Aprobación del acta de la reunión anterior**

El acta provisional de la sesión anterior - 26.5.2014- se aprueba por unanimidad.

### **Puntos 2 y 3: Índice de Envejecimiento Activo y Estrategia de Envejecimiento Activo.**

La presidenta, Lide Amilibia, señala que estos dos puntos guardan una estrecha relación y los presenta brevemente para que luego sean expuestos por Mayte Sancho. Respecto al segundo (estrategia), informa que el término “plan” de envejecimiento activo, al que se refirió en la reunión anterior, ha sido sustituido por el de “estrategia”, debido a que así es más sencilla su tramitación y aprobación. Indica que para elaborar la **Estrategia Vasca de Envejecimiento Activo 2015-2010** se han tenido en cuenta, entre otras cosas, diversos estudios previos, como el



proposamen» deiturikoekin lotutakoa, 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruzko azterketa eta Zahartze Aktiboaren Indizea bera. Estrategia hori hiru arlo handiz osatuta dago, geroago azalduko den bezala.

**Zahartze Aktiboaren Indizeari** dagokionez, L. Amilibiak adierazi du Europako Batzordeko Enplegu, Gizarte Gai eta Inklusio Zuzendaritza Nagusiak eta NBERen Europarako Batzorde Ekonomikoak (UNECE) sortu dutela. Indizearen helburua zahartze aktiboari buruzko politika publikoak diseinatzeko jarraibideak finkatzea da. Gure autonomia-erkidegoa Europar Batasuneko 28 estatu kideen artean ondo kokatuta dagoela esan du Amilibiak, 7. tokian baitago (36,3 puntu), Suediaren, Danimarkaren, Herbehereen, Finlandiaren, Erresuma Batuen eta Irlandaren ondoren. Espainiako Estatu 18. tokian dago (32,8 puntu).

Jarraian, Mayte Sanchori eman dio hitza eta berak bi puntuak azaldu ditu, diapositibaz lagunduta.

## **2. puntua: Zahartze Aktiboaren Indizea** (Active Ageing Index - AAI)

**Mayte Sanchok** (Matia), bere hitzaldiaren hasieran, adierazi du indize hori Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) osatutako zahartze aktiboari buruzko paradigman oinarrituta dagoela. Paradigma hori, orain, berraztertzen ari dira. Indizea egiteko, nazioarteko hainbat erakundek –esaterako, ELGE, Europar Batasuna eta Europako Kontseilua– egindako ekarpenak berraztertu dira, baita European, Amerikan, Australian eta Zeelanda Berrian arlo horretan egindako plangintzak ere. Era berean, 43 gizarte-erakunde eta -entitateri egindako elkarrizketetatik ateratako iritziak jaso dira. Juridikoki, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean oinarritzen da.

Sarrera horren ondoren, M. Sanchok **Zahartze Aktiboaren Indizea** (aurrerantzean, ZAI) azaldu du. Adierazi

referente a las “100 propuestas”, el estudio de las condiciones de vida de mayores de 55 años y el propio Índice de Envejecimiento Activo. Esta Estrategia consta de tres grandes áreas, como se explicará posteriormente.

En cuanto al **Índice de Envejecimiento Activo**, L. Amilibia señala que surge de la Dirección General de Empleo, Asuntos Sociales e Inclusión de la Comisión Europea y de la Comisión Económica de la ONU para Europa (UNECE). Su finalidad es fijar las pautas para diseñar las políticas públicas sobre el envejecimiento activo. Señala que nuestra Comunidad está bien situada entre los 28 países miembros de la Unión Europea, puesto que ocupa el 7º lugar (con 36,3 puntos), detrás de Suecia, Dinamarca, Holanda, Finlandia, Reino Unido e Irlanda. El Estado español está en el puesto 18 (32,8 puntos).

A continuación cede la palabra a Mayte Sancho quién expone ambos puntos, acompañando con diapositivas.

## **Punto 2: Índice de Envejecimiento Activo** (Active Ageing Index - AAI).

**Mayte Sancho** (Matia) comienza su intervención señalando que este índice se basa en el paradigma sobre el envejecimiento activo, emanado de la Organización Mundial de la Salud (OMS). Ese paradigma está ahora en proceso de revisión. Para elaborar este índice, se han revisado las aportaciones realizadas por organismos internacionales - como la OCDE, la Unión Europea y el Consejo de Europa- y la planificación realizada al respecto en Europa, América, Australia y Nueva Zelanda. Asimismo, se han recogido las opiniones extraídas de las entrevistas realizadas a 43 personas de instituciones y entidades sociales. Jurídicamente, se fundamenta en la Ley de Servicios Sociales.

Tras esta introducción, M. Sancho pasa a exponer el **Índice de Envejecimiento Activo** (en adelante, IEA). Señala que esta idea nació

duenez, 2012an sortu zen ideia hori (zahartze aktiboaren Europako urtea), eta zahartze aktiboaren oinarritzko dimentsioak modu objektiboan neurtzeko tresna bat da. Indize horrek, alde batetik, zahartze aktiboaren arloko politika publikoak hobetzen laguntzen du, eta, bestetik, adinekoek egiten dituzten ekarpeni garrantzia ematen die, parte-hartzearen eta ekonomiaren bitartez.

ZAI 55 urteko eta hortik gorako pertsonekin lotuta dago; beraz, 65 urteko hesi klasikoa hautsi eta mugarrri bat sortzen du. Hala, zahartzea aztertzen du, zahartzen diren pertsonak –Estrategiak bezala–, eta hori ona da. ZAIk 4 dimentsio ditu: enplegua, gizarte-partaidetza, bizimodu autonomo eta independentea eta ingurune egoki batean zahartze aktiboa izateko gaitasuna. Proiekzioan, dimentsio bakoitza adierazle propioekin aurkezten joan da M. Sancho. Jarraian, Euskadiko eta Estatuko puntuazio orokorra azaldu du eta EBko 28 herrialdeek duten tokia. Era berean, aipatutako puntuazioak azaldu ditu, baita EBko herrialdeek 4 dimentsioetako bakoitzean duten batez besteko puntuazioa ere:

**INDIZE OROKORRA** Euskadi Estatu

Puntuak	36,3	32,8
Lekua	7.a	18.a

**ENPLEGUA:** Eusk. Estatu  $\bar{X}$  –EB

Puntuak	25,4	23,3	27,9
EBn duen lekua	15	19	

**GIZAR. PART.** Eusk. Estatu  $\bar{X}$  –EB

Puntuak	21	18,3	18,1
EBn duen lekua	9	15	

**BIZIM. IND.** Eusk. Estat.  $\bar{X}$  –EB

Puntuak	72,5	69,8	70,6
EBn duen lekua	14	16	

**ZAH. AKT. GAITAS.** Eusk. Estat.  $\bar{X}$  –EB

Puntuak	63,9	56,3	54,4
EBn duen lekua	3	13	

en 2012 (año europeo del envejecimiento activo) y es una herramienta para medir de manera objetiva las dimensiones básicas del envejecimiento activo. Este índice, por un lado, contribuye a mejorar las políticas públicas en materia de envejecimiento activo y, por otro, da importancia a la aportación de las personas mayores, mediante la participación y la economía.

El IEA se refiere a personas de 55 años y más, de manera que rompe la clásica barrera de los 65 años, marcando un antes y un después, para pasar a hablar de proceso de envejecimiento, personas que envejecen –al igual que se hace en la Estrategia– lo cual es positivo. El IEA consta de 4 dimensiones: empleo, participación social, vida autónoma e independiente y capacidad para envejecer activamente en un entorno propicio. M. Sancho va presentando en la proyección cada dimensión con sus propios indicadores. A continuación se expone la puntuación global de Euskadi y del Estado y el puesto que ocupan en los 28 países de la UE. Igualmente, se exponen dichas puntuaciones, así como la puntuación media de los países de la UE, de cada una de las 4 dimensiones:

**ÍNDICE GLOBAL** Euskadi Estado

Puntos	36,3	32,8
Puesto	7º	18º

**EMPLEO:** Eusk. Estado  $\bar{X}$  –UE

Puntos	25,4	23,3	27,9
Puesto UE	15	19	

**PART.SOCI.** Eusk. Estado  $\bar{X}$  –UE

Puntos	21	18,3	18,1
Puesto UE	9	15	

**VIDA INDEP.** Eusk. Estad.  $\bar{X}$  –UE

Puntos	72,5	69,8	70,6
Puesto UE	14	16	

**CAPAC. ENV.ACT.** Eusk. Estad.  $\bar{X}$  –UE

Puntos	63,9	56,3	54,4
Puesto UE	3	13	



Aurreko azalpenaren ondoren, bertaratutako batzuk mintzatu dira. **Txelo Pérezek** (Gipuzkoako F. Aldundia) adierazi duenez, datuak ez ditu sexuaren arabera banatuta ikusi, eta azterketetan genero-ikuspegia aplikatzeko eskatu du. Adineko pertsonen zaintza ontzat jotzea eztabaidagarritzat jo du, ez delako ona familiaren bizkar uztea. Aldiz, desgaitasunen bat duten adinekoen zaintza baldintza duinetan egitea eta zeregin hori emakumeen bizkar ez uztea bai, hori ontzat jo du. **M. Sanchok** lehenengoarekin ados dagoela adierazi du eta Estrategian zuzendu egingo dela gaineratu du. Bigarrenari dagokionez, aitona-amonek bilobak zaintzen zenbat denbora eman behar duten eztabaidagai dagoela adierazi du. Belaunaldien arteko harreman desiratua ona da, baina familiaren zaintza gizarte-babeseko sistemarekin osatzeko eskatzen dute foro guztietan.

**Maite Santamariak** ere (Emakunde) datuak generoaren arabera bereiztearen falta sumatu du. Zaintzari dagokionez, zeregin hori familien esku dagoenean zaintza kalitatezkoa izatea bermatu behar dela esan du. **M. Sanchok** esan du datu horiek generoaren arabera bereizten direla. Bigarrenari dagokionez, adinekoek II. eta III. mendekotasun-maila badute eta zaintza behar badute, askotan, ondorengoan etxera bizitzera joaten direla esan du eta inork ez duela egoera hori desio izaten.

**Sergio Murillok** (Bizkaiko Foru Aldundia) argitu du indizeak zahartze aktiboa gutxi gorabehera neurtzen duela eta hori ez dela ez ona ez txarra, ez hobea ez okerragoa. Gaineratu duenez, hemen ez dugu Suediak enplegu arloan egiten duena berdindu nahi. Horren azpian dauden politikei buruzko eztabaida sortzea da helburua. **Mayte Sanchok** azken horrekin ados dagoela adierazi eta enpleguaren gaiak eztabaida pizten duela esan du. ZAIk gizarte-politika birformulatzen du.

**José Luis Elosuak** (NAGUSILAN) esan duenez, agian, Mendekotasun Legea ez delako garatu gertatzen da hori, ondo garatuko balitz

Tras la anterior exposición, se producen varias intervenciones. **Txelo Pérez** (Diputación F. Gipuzkoa) señala que no ve el desglose de datos por sexos y pide que en los estudios se aplique la perspectiva de género. Cuestiona que el cuidado de personas mayores deba ser considerado positivamente, porque no es bueno cargar en la familia. Sí ve positivo, sin embargo, que el cuidado de las personas mayores y con discapacidad deba hacerse en condiciones dignas y no atribuir esta tarea a las mujeres. **M. Sancho** muestra su acuerdo con lo primero y añade que se corrige en la Estrategia. Sobre lo segundo indica que hay un debate abierto sobre el tiempo que han de dedicar los abuelos y abuelas al cuidado de sus nietos y nietas. La relación intergeneracional deseada es buena, pero en todos los foros se pide que los cuidados familiares se complementen con el sistema de protección social.

**Maite Santamaría** (Emakunde) también echa en falta que los datos estén desagregados por género. Sobre los cuidados dice hay que garantizar cuidados de calidad cuando esa labor recae en las familias. **M. Sancho** dice que estos datos se desagregan por género. Sobre lo segundo, indica que cuando se dan los niveles II y III de dependencia en las personas mayores y necesitan cuidados, éstas se trasladan con frecuencia al domicilio de sus descendientes, pero esta situación no es deseada por nadie.

**Sergio Murillo** (Diputación F. Bizkaia) puntualiza que el índice mide más o menos el envejecimiento activo, lo cual no es bueno ni malo, no es mejor o peor. Añade que aquí no queremos ser Suecia en empleo. Lo que se busca es generar debate sobre qué políticas subyacen a esto. **Mayte Sancho** muestra su acuerdo con esto último e indica que el tema del empleo genera debate. El IEA reformula la política social.

**José Luis Elosua** (NAGUSILAN) señala que esa situación se da, quizás, porque no se ha desarrollado la ley de dependencia, ya que un



indizea jaitxi egingo litzatekeelako. Horren adibide egoki gisa, Etxean Ondo programa aipatu du. Zenbait pertsonak hitzaldi horri kontra egin diote. **Txelo Pérezek** eta **Paloma Arancetak** (Arabako F. Aldundia) esan dute ez daudela ados baieztapen horrekin eta euskal lurraldeetan murrizketak egin izana ukatu dute; horren froga gisa, gizarte-zerbitzuetako zorroari buruzko akordioa aipatu dute eta balioztatu egin behar dela esan dute. Era berean, **Lide Amilibiak** (burua), foru-ordezkariek adierazitakoarekin bat eginda, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan egiten ari den ahalegina eta Euskadiko babes-maila handiak aipatu ditu.

### **3. puntua: Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia**

Azalpenak aurrera jarraitu du, **Mayte Sanchoren** eskutik (Matia). Estrategia horretan 99 ekintza inguru daudela adierazi du. Berau egiteko, esparru teorikoaz eta Zahartze Aktiboaren Indizeaz gain, hainbat herrialdetako plangintza gerontologikoen ekarpenak aztertu dira. Horri dagokionez, Gizartea Zahartzera Egokitzeko Frantziako Legea nabarmendu du. Kanadak bukaerara arteko zahartze-ibilbide bat planteatzen duela eta ibilbide hori zainketa aringarriekin bukatzen dela erantsi du. Euskadin, zahartze-prozesura lotu gara. Zahartzen ari diren pertsonen diagnostikoa hiru lurraldeen arabera bereiz daiteke eta horrek interes berezia ematen dio.

Plangintza horretako printzipio nagusiak: duintasuna, autonomia, parte-hartzea eta erantzukidetasuna. Azken hori berria da eta prozesu osoan agertzen da, erantzukizunak esku hartzen duten hainbat eragilerekin lotuta daudelako.

Jarduera-arloak 3 dira. Bakoitzak bere helburua, azpiatalak eta dagozkion ekintzak barne hartzen ditu. M. Sanchok zehatz-mehatz azaldu du dena, diapositibak baliatuz, hurrengo eskemaren arabera (ekintzak ez dira agertzen):

buen desarrollo bajaría ese índice. Cita como buen ejemplo el programa “Etxean Ondo”. Esta intervención es rebatida por varias personas. Así, **Txelo Pérez** y **Paloma Aranceta** (Diputación F. Álava) muestran su disconformidad con esa afirmación y rechazan que en los territorios vascos haya habido recortes; como prueba, citan el acuerdo alcanzado para la Cartera de servicios sociales, que hay que poner en valor. Igualmente, **Lide Amilibia** (presidenta) se une a lo manifestado por las representantes forales y añade el esfuerzo que se está haciendo en el Plan Estratégico de Servicios Sociales y los elevados niveles de protección de Euskadi.

### **Punto 3: Estrategia Vasca de Envejecimiento Activo**

Continúa la exposición por parte de **Mayte Sancho** (Matia). Indica que esta Estrategia contiene unas 99 acciones. En su elaboración, además del marco teórico y el índice de Envejecimiento Activo, se han analizado las aportaciones de planificación gerontológica en distintos países. A este respecto, destaca la Ley francesa de Adaptación de la Sociedad al Envejecimiento. Añade que Canadá plantea un itinerario de envejecimiento hasta el final y acaba en los cuidados paliativos. En Euskadi nos hemos atendido al proceso de envejecimiento. El diagnóstico de las personas que envejecen es desagregable por los tres territorios, lo que le aporta un especial interés.

Principios que presiden esta planificación: dignidad, autonomía, participación y corresponsabilidad. Este último es novedoso y aparece todo el proceso, pues la responsabilidad afecta a distintos agentes intervinientes en el mismo.

Áreas de actuación: son 3. Cada una tiene su objetivo, las subáreas y las correspondientes acciones. M. Sancho explica todo ello con detalle, valiéndose de diapositivas, de acuerdo con el siguiente esquema (en el que no figuran las acciones):



1. arloa. Gizartea zahartzera egokitzea. Gobernantza-eredu berri bat. Helburua: egoera berriaren aurrean eredu berrirako beharrezkoa den gizarte- eta antolaketa-aldaketa.

- 1.1. Gobernantza hobetzea
- 1.2. Eskubideak bermatzea eta bazterkeriaren aurka borrokatzea
- 1.3. Segurtasuna eta gizarte-inklusioa bermatzea
- 1.4. Zahartzearen inguruko garapen ekonomikoa sustatzea, enplegusorburu gisa eta kontsumo berrien hobi potentzial gisa, zahartzen ari diren pertsonengandik abiatuz.

2. arloa. Aurrerapena eta prebentzioa, hobeto zahartzeko. Helburua: autonomia eta independentzia sustatzea, bizi-proiektuari buruzko erabakiak hartzea ahalbidetuko duten politiken bitartez.

- 2.1. Bizitza osoan erabakiak modu arduratsuan hartzea sustatzea
- 2.2. Lan-bizitzatik erretirora modu positiboan igarotzea sustatzea
- 2.3. Etxebizitza eta ingurunea bizitza osoan haietaz gozatzeko prestatzea
- 2.4. Zahartze osasuntsua sustatzea
- 2.5. Bizitza osoko ikaskuntza barne hartzea

3. arloa. Lagunkotasuna eta parte-hartzea, ongizatearen gizartea eraikitzeko garaian. Helburua: prozesu honetan, lagunkotasuna eta zahartzen diren pertsonen parte-hartzea sustatzea.

- 3.1. Boluntarioritza eta parte-hartze mugimendu komunitarioak bultzatzea
- 3.2. Adinekoek familian egiten

Area 1. Adaptación de la sociedad al envejecimiento. Un nuevo modelo de gobernanza. Objetivo: Cambio social y organizativo que se requiere para el nuevo modelo ante la nueva situación.

- 1.1. Mejorar la gobernanza
- 1.2. Garantizar los derechos y luchar contra la discriminación
- 1.3. Garantizar la seguridad y la inclusión social
- 1.4. Promover el desarrollo económico en torno al envejecimiento, como fuente de generación de empleo y como potencial yacimiento de nuevos consumos desde las personas que envejecen.

Área 2. Anticipación y prevención para envejecer mejor. Objetivo: promover la autonomía y la independencia mediante políticas que permitan la toma de decisiones sobre el proyecto de vida.

- 2.1. Promover la toma de decisiones responsable a lo largo de la vida
- 2.2. Fomentar una transición positiva de la vida laboral a la jubilación
- 2.3. Preparar la vivienda y el entorno para disfrutarlas toda la vida
- 2.4. Promover un envejecimiento saludable
- 2.5. Incorporar el aprendizaje a lo largo de la vida

Área 3. Amigabilidad y participación en la construcción de la sociedad del bienestar. Objetivo: promover la amigabilidad y la participación de las personas que envejecen en este proceso.

- 3.1. Impulsar el voluntariado y los movimientos participativos comunitarios





dituzten zaintza- eta babes-lanak baloratzea

### 3.3. Lagunkotasun-prozesuak bultzatzea

Azalpen hori bukatu ondoren, **Lide Amilibiak** (burua) hartu du hitza eta esan du dokumentu zabal hori berrikusi eta bukatu ondoren helaraziko zaiela. Era berean, finkatzen diren ildoetan aurrera nola egin ikusteko lan-plangintza bat egingo dela adierazi du.

**Miren Saratxagak** (Etxebizitza, Eusko Jaurlaritza) esan duenez, Sailburuordetzan, alde batetik, epe ertaineko alokairuan lan egiten ari dira, eta, beste alde batetik, birgaikuntzan, irisgarritasun unibertsala lehentasuntzat hartuta. Hainbat diru-laguntza mota daude: etxebizitzan jabeen erkidegoko elementu komunak konpontzeko laguntzak (igogailua, zero kota, eta abar), etxebizitza partikularrak egokitzekoak (bainugela, eta abar) eta toki-erakunde eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako laguntzak. Horrez gain, zuzkidura-bizitokiak daude, eta, laster, erabilera lagatzeko kooperatibak ezarriko dira. **Txelo Pérezek** (Gipuzkoako F. Aldundia) adierazi dio Gipuzkoako Foru Aldundia ere bainugelak aldatzea finantzatzen ari dela, eta horretarako koordinazioa eskatu dio. **Txema Odriozolak** (Federpen) argitu duenez, Aldundiaren laguntzak jaso ahal izateko, mendekotasun-egoeran egon beharra dago.

**J.L. Elosuak** (Nagusilan) adinekoak bizi diren etxebizitzetan ke-detekttagailuak instalatzeko programa bat proposatu du. **T. Odriozolak** adierazi duenez, adinekoak etxebizitzan egokitzapenarekin kezkatuta daude. Horregatik, diru-laguntzak bainugela aldatzera eta igogailua jartzera ez mugatzeko eskatu du. **L. Amilibiak** esan du dokumentu hori ibilbide-orri bat dela eta entitateei lehenetsi beharreko alderdiei buruz galdetuko zaiela.

## 4. puntua: Euskadi Lagunkoia

**Lide Amilibiak** (burua) proiektu hori aurreko saioan aurkeztu zela gogorarazi du. Gainera,

3.2. Valorar los cuidados y apoyos prestados por las personas mayores en la familia

3.3. Impulsar los procesos de amigabilidad

Finalizada esta exposición, interviene **Lide Amilibia** (presidenta) e indica que este amplio documento se les remitirá una vez que se revise y ultime. Igualmente, señala que se elaborará un plan de trabajo para ver cómo ir avanzando en las líneas que se marcan.

**Miren Saratxaga** (Vivienda, Gobierno Vasco) señala que en la Viceconsejería se trabaja, por un lado, en el alquiler a medio plazo y por otro, en la rehabilitación donde se prima la accesibilidad universal. Hay ayudas económicas para el arreglo de elementos comunes de la comunidad de propietarios de viviendas (ascensor, cota cero, etc.), para adaptación de la viviendas particulares (baño...) y también para las entidades locales y entidades sin ánimo de lucro. También hay alojamientos dotacionales y pronto se introducirán las cooperativas de cesión de uso. **Txelo Pérez** (Diputación F. Gipuzkoa) le señala que la Diputación de Gipuzkoa también está financiando el cambio de baños, por lo que solicita coordinación al respecto. **Txema Odriozola** (Federpen) aclara que para acceder a las ayudas de la Diputación se requiere estar en situación de dependencia.

**J.L.Elosua** (Nagusilan) propone un programa de instalación de detectores de humos en viviendas en las que residan personas mayores. **T. Odriozola** señala que la adecuación de la vivienda preocupa a las personas mayores y pide que las ayudas económicas no se limiten a la modificación del baño y a la instalación de ascensor. **L. Amilia** afirma que este documento es una hoja de ruta y que se consultará a las entidades sobre los aspectos a priorizar.

## Punto 4: Euskadi Lagunkoia

**Lide Amilia** (presidenta) recuerda que ya se presentó este proyecto en la sesión anterior. Además, el 3 de julio se presentó oficialmente



uztailaren 3an, ofizialki aurkeztu zen, Donostian. Sarearen barruan 15 udalerrri daude eta beste batzuk atxikimendua formalizatzeke daude.

Bai berak bai beraren ondoren hitza hartu duenak, **Elena del Barriok** (Matia), 2014an egindako jardueren eta 2015rako aurreikusi direnen berri eman dute. Lehenengoan, hau da, egindakoen artean, honako hauek daude: 15 udalerrirekin lan egin da (Arabako 10 eta Gipuzkoako 5); Amurrion eta Donostian, lagunkotasun arloan lan egin nahi duten udalerriek erabili beharreko metodologiari buruzko jardunaldiak egin dira eta 40k baino gehiagok interesa adierazi dute; Orioko Kilometroak jaian parte hartu da; 4 udalerritako 54 establezimendu lagunkoiekin lan egin da eta narriadura kognitiboa duten pertsonak tratatzeko moduari buruzko jarraibideak eman zaizkie; Ordiziak establezimendu lagunkoiak eta denbora-bankua martxan jarri ditu; webgunean ondareari buruzko bideoak jarri dira; Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera lan egin da (Osasun Sailarekin Zahartze Aktiboa eta Osasungarria Izateko Gida egin da, eta Kirolarekin, Mugibetiren inguruan lan egin da), eta abar. Euskadi Lagunkoiaren webguneak topagune funtzioa betetzen du eta dena jasotzen du.

2015erako aurreikusitako jardueren artean, honako hauek aipatu dira: programa beste udalerrri batzuetara zabaltzea eta prozesuan laguntzea; lagunkotasunari buruzko diagnostiko bat egitea; jardunbide egokiei buruzko datu-baseak finkatzea; gidak egitea; tailerrak, ikastaroak, jardunaldiak, eta abar.

Elena del Barriok esan duenez, Euskadi Lagunkoiak herritarren parte-hartzea sustatzen du, zahartzen ari diren pertsonentzako ingurune erraztaileak sortzeko lagunkotasuna garatzeari begira. Behetik gora eraikita dago, eta, gogorarazi duenez, 8 ikerketa eta ekintza arlo lantzen ditu: garraioa, etxebizitza, gizartearen parte-hartzea eta gizarte-sarea, errespetua eta inklusioa, herritarren parte-hartzea eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, gizarte- eta osasun-zerbitzuak

en Donostia. Hay 15 municipios adheridos a la red y varios están pendientes de formalizar la adhesión.

Tanto ella como **Elena del Barrio** (Matia) que toma la palabra posteriormente, informan de las actividades realizadas en 2014 y las previstas para 2015. Entre las primeras, ya realizadas, figuran: se ha trabajado con 15 municipios (10 de Álava y 5 de Gipuzkoa); Jornadas en Amurrio y Donostia sobre la metodología a seguir por los municipios que quieran trabajar la amigabilidad, más de 40 mostraron su interés; se participó en el Kilometroak, de Orío; se ha trabajado con 54 establecimientos amigables, de 4 municipios, y se les han dado instrucciones sobre el trato a personas con deterioro cognitivo; Ordizia ya ha puesto en marcha los establecimientos amigables y el banco del tiempo; se han colgado videos, sobre legado, en la web; se ha colaborado con otros departamentos del Gobierno (con Salud, elaborando la Guía de Envejecimiento Activo y Saludable y con deportes en relación con Mugibeti), etc. La web de Euskadi Lagunkoia sirve de punto de encuentro y lo recoge todo.

Entre las actividades previstas para 2015 se citan: la expansión del programa a nuevos municipios y acompañarles en el proceso; elaborar un diagnóstico sobre amigabilidad; fijar bases de datos de buenas prácticas; elaborar guías; talleres, cursos, jornadas, etc.

Elena del Barrio indica que Euskadi Lagunkoia promueve la participación ciudadana en el desarrollo de la amigabilidad para crear entornos facilitadores para las personas que envejecen. Se construye de abajo hacia arriba y recuerda que se trabajan 8 áreas de investigación acción: transporte, vivienda, participación y tejido social, respeto e inclusión, participación ciudadana y empleo, comunicación e información, servicios sociales y de salud, y espacios al aire libre.



eta aire zabaleko espazioak.

Aurkezpenaren ondoren, bertaratutako batzuk mintzatu dira. **T. Odriozolak** (Federpen) esan du bere ustez adineko pertsonen parte-hartzea txikia dela. **J.L. Elosuak** (Nagusilan) proiektu hau aurrera nork eta nola eramango duen galdetu du, eta parte-hartzea adinekoen toki-kontseiluen bitartez bideratzea planteatu du. **L. Amilibiak** erantzun die adinekoak direla proiektu honetako benetako protagonistak eta horixe aitortzen zaiela; protagonismoa ez dago elkarte bateko kide izatearekin edo ez izatearekin lotuta, ezta, kasuan kasu, elkarte jakin batekoak izatearekin ere. Lagunkoitasunaren alde lan egin nahi duten pertsona guztiak ongi etorriak izango direla gaineratu du. Udal bakoitzak udalerriko adinekoen elkarteekin lan egin beharko du, horiek gabe proiektuak ez baitu zentzurik. Aurrerantzean ere Matiaren babesa izatea espero dutela adierazi du. **Maite Santamaríak** (Emakunde) adierazi duenez, agian, parte hartu duten adinekoen sareak aipatzea falta da, baina planteamendua gustatzen zaiola erantsi du. **E. del Barriok** erantzun du zerrenda badaukatela eta jasoko dutela.

### **5. puntua: Bestelakoak**

Puntu hori gai-zerrendan ez zegoen arren, buruak, **Lide Amilibiak**, adierazi du Batzorde honen bileretan sartu nahi duela, adinekoekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako beste sail edo arlo batzuetako proiektu eta ekimenei buruzko informazioa emateko, gutxienez, egiten ari den lanari buruzko ikuspegi osoa edukitzearren. Ildo horretan, honako hau jakinarazi du:

**5.1)** Erakunde Arteko Organoa –Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek (Eudel) osatzen dute– prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko dekretuaren inguruko akordio batera iritsi zen, Gizarte Zerbitzuen Legea garatzeari begira. Erantsi duenez, 2016.12.26an, katalogoan jasotako guztia eskubide subjektiboa izango da.

Tras la exposición, hay varias intervenciones. **T. Odriozola** (Federpen) señala que cree que hay poca participación de las personas mayores. **J.L. Elosua** (Nagusilan) pregunta quién y cómo se va a llevar a cabo este proyecto y plantea la participación a través de los consejos locales de mayores. **L. Amilibia** les responde indicando que las personas mayores son las verdaderas protagonistas de este proyecto y así se les reconoce; ese protagonismo es independiente de la pertenencia o no a una asociación y, en su caso, cualquiera que sea la asociación. Añade que toda persona que quiera trabajar por la amigabilidad será bien recibida. Cada ayuntamiento deberá trabajar con las asociaciones de personas mayores del municipio, sin las cuales el proyecto carece de sentido. Señala que se seguirá contando con el apoyo de Matia. **Maite Santamaría** (Emakunde) indica que, quizás, se echa en falta nombrar las redes de mayores que han participado y añade que le gusta el planteamiento. **E. del Barrio** responde que tienen la relación y se traerá.

### **Punto 5: Varios**

Si bien este punto no figura en el orden del día, la presidenta, **Lide Amilibia**, señala que lo quiere introducir en las reuniones de esta Comisión, para que se aporte información sobre proyectos e iniciativas relacionadas con las personas mayores, que partan de otros departamentos o áreas del Gobierno, al menos, para tener una visión global de lo que se está haciendo. En este sentido, informa de lo siguiente:

**5.1)** El Órgano Interinstitucional -integrado por el Gobierno Vasco, diputaciones forales y ayuntamientos (Eudel)- alcanzó un acuerdo sobre el decreto de la Cartera de prestaciones y servicios, en desarrollo de la Ley de Servicios Sociales. Añade que el 26.12.2016 todo lo contemplado por el catálogo será derecho subjetivo.

**5.2)** Se ha pilotado el instrumento de



5.2) Adinekoen kontrako tratu txarrak atzemateko tresna bat probatu eta ontzat eman da. Foru-aldundi eta udalen esku jarriko da, osasunaren, gizarte-zerbitzuen eta finantza-erakundeen arloan aplikatzeko. Mota horretako Estatuko lehenengo tresna da.

5.3) Foru-aldundiekin batera, adinekoentzako egoitza-zentroak arautzeko dekretu berri bat lantzen ari da.

5.4) Berriki, Lehendakaritzako eta Osasun eta Gizarte Gaietako sailtako kidez osatutako Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat Danimarkara joan da, herrialde horretako jaiotza-politikak eta zahartze-aktiboko politikak ezagutzeko. Lehenengoari dagokionez, ekarpenik ez duela jaso adierazi du. Zahartzeari dagokionez, han tasa oso altua dagoela adierazi du eta adinekoak etxean geratzearen aldeko apustua egin dela. Horretarako, zerbitzuen eta teknologien bidez laguntzen diete. Arlo horretan, teknologia-zentroak, unibertsitateak eta administrazioa modu koordinatuan lan egiten ari dira.

5.5) **Guillermo Viñegra** (Osasun Saila) sail hori aurrera eramaten ari den jardueretako batzuen berri emateko gonbidatu du Batzordeko buruak. G. Viñegrak, bere mintzaldiaren hasieran, zahartzeari arreta ematea politika publiko guztietan dagoela esan du: zeharkakoa, sail artekoa eta erakunde artekoa dela. Hala, 2013-2020 aldirako Osasun Planean zahartze osasuntsuari buruzko arlo zehatz bat dago eta hiru motatako jarduerak barne hartzen ditu: hiri lagunkoiak bultzatzea; jarduera fisiko sustatzea (Euskadi 1. tokian dago EBn), baita autonomia pertsonala ere; eta harreman sozialak, boluntariora eta abar sustatzea. Horregatik guztiagatik, 2013ko uztailean, Europako Batzordeko Berrikuntzarako eta Zahartze Aktibo eta Osasuntsurako Europako Elkarteak **Euskadi EBko Reference site (erreferentziazko eremu edo gune) izendatu zuen**. Jarduera horiek aurkeztu diren Euskadi

detección de malos tratos a personas mayores, de manera que ha quedado validado. Se pondrá a disposición de diputaciones y ayuntamientos para su aplicación en los ámbitos de salud, servicios sociales y, también, en entidades financieras. El instrumento es el primero en todo el Estado.

5.3) Se está trabajando, junto con las diputaciones, en un nuevo decreto regulador de los centros residenciales para personas mayores.

5.4) Recientemente, una delegación del Gobierno Vasco, integrada por personal de Lehendakaritza y de los departamentos de Salud y de Servicios Sociales, ha realizado un viaje a Dinamarca, para conocer las políticas de natalidad y las de envejecimiento activo de ese país. Sobre lo primero, indica que no han recogido aportaciones. En cuanto al envejecimiento, señala que allí tienen una tasa muy elevada y que se ha apostado por el mantenimiento de la persona mayor en el hogar, con apoyo de servicios y tecnologías. Se cuenta con el trabajo coordinado de los centros tecnológicos, las universidades y la Administración.

5.5) **Guillermo Viñegra** (Departamento de Salud), ha sido invitado por la presidenta para que informe de algunas actuaciones que se llevan a cabo en ese departamento. G. Viñegra comienza indicando que la atención al envejecimiento está en la agenda de todas las políticas públicas: es transversal, interdepartamental e interinstitucional. Así, en el Plan de Salud 2013-2020 hay un área específica sobre envejecimiento saludable y contempla 3 tipos de actuaciones: promover ciudades amigables; el fomento de la actividad física (Euskadi ocupa el nº 1 en la UE) y de la autonomía personal; y el fomento de las relaciones sociales, voluntariado, etc. Por todo ello, en julio'2013 **Euskadi fue elegida "Reference site" (área o zona de referencia) en la UE**, por la Asociación Europea para la Innovación y el Envejecimiento Activo y Saludable, de la Comisión Europea. Estas actuaciones están en consonancia con Euskadi Lagunkoia y la



Lagunkoiarekin eta Zahartze Aktiborako Estrategiarekin bat datoz.

Testuinguru horretan, osteoporosiaren eraginak jorratu nahi dira, adineko askori eragiten baitie; batez ere, emakumeei. Horretarako, OMEk ariketa fisikoak egitea eta erorikoak saihestea gomendatzen du. Azken horri dagokionez, Euskadiko **adinekoen istripu-tasari buruzko azterketa bat** egin da. Pertsona horiek dituzten istripuak, nagusiki, erorikoek eragiten dituztela ikusi da –kasuen % 92an– eta erorikoak, batez ere, etxean eta inguruan (kalean...) gertatzen direla. Zenbat eta adinekoagoak izan orduan eta eroriko gehiago gertatzen direla, emakumeen artean gizonen artean baino kasu gehiago (eta sarriago) daudela (trafiko-istripuen kasuan izan ezik) eta heriotza-indizea handitu egiten dela ere ikusi da.

Ospitalean alta ematea eragiten duten istripu motak aztertuz, 65-74 urteko pertsonak dituzten istripu guztietatik % 72 erorikoak direla ikusten da; 75-84 urteko pertsonen kasuan % 80 direla; eta 85 urtetik gorakoek kasuan, % 84. Sarritan, erorikoek aldaka haustea eragiten dute eta horrek ondorio larriak ditu: aldaka hausten dutenen % 25 baino gehiago urte bateko epean hiltzen dira, eta % 50ek ez dute aurreko mugikortasun eta independentzia egoera berreskuratzen (beraz, autonomia eta bizi-kalitatea galtzen dute). Horrek guztiak komunitatearen osasun eta gizarte arloko kostuak handitzea dakar.

Horregatik guztiagatik, adinekoen segurtasuna areagotzeko lan egin behar da, erorikoak saihesteko; hau da, prebentzioan lan egin, bai arrisku indibidualen kasuan (giharretako defizita, oreka-defizita...) bai ingurune-arriskuen kasuan (zoru irregularra, irristakorra, argiztapen gutxi...). Ildo horretan, Osasun Saila prebentzioa hiru norabidetan jorratzen ari da: ariketa fisikoak egitea, etxea ingurune segurua izatea eta norbere erantzukizuna sustatzen ditu (ikusmen eta entzumen azterketak egitea, oinetako egokiak eramatea...). Erorikoak prebenitzeari buruzko tailerrak egiten dira, udalen laguntzaz. Alderdi teoriko bat dute (prebentzioa, etxebizitzaren

Estrategia de Envejecimiento Activo que se han presentado.

En ese contexto, se quieren abordar los efectos de la osteoporosis, problema que afecta a muchas personas mayores, básicamente mujeres. Para esto, la OMS recomienda actividad física y prevenir las caídas. En relación con esto último, se ha realizado un **estudio sobre la accidentalidad de las personas mayores** en Euskadi. Se ha visto que los accidentes que sufren esas personas están motivados, mayoritariamente, por caídas –en un 92%– y que esas caídas tienen lugar, de manera primordial, en el hogar y sus alrededores (las calles...). Se observa, también, que a mayor edad se producen más caídas, que la incidencia (y frecuencia) es mayor en las mujeres que en los hombres (excepto en accidentes de tráfico) y que se eleva el índice de mortalidad.

Al estudiar los distintos tipos de accidentes que dan lugar a altas hospitalarias, resulta que las caídas suponen casi el 72% de todos los accidentes en las personas entre 65-74 años; el 80% en las personas entre 75-84 años y el porcentaje se eleva al 84% a partir de los 85 años. Con mucha frecuencia, las caídas suponen fractura de cadera y esto tiene graves consecuencias: más del 25% de quienes se fracturan la cadera fallecen al año y el 50% restante no recupera su situación anterior en movilidad e independencia, por lo que tiene pérdida de autonomía y de calidad de vida. Todo eso implica incremento del coste sanitario y social para la comunidad.

Por todo ello, hay que trabajar en aumentar la seguridad de las personas mayores para evitar las caídas; esto es, trabajar en prevención, tanto de los riesgos individuales (déficit muscular, de equilibrio...) como de los ambientales (suelo irregular, resbaladizo, poca iluminación...). En este sentido, desde el Departamento de Salud se trabaja la prevención, en 3 direcciones: promover el ejercicio físico, hacer que el hogar sea un entorno seguro y la responsabilidad individual (acudir a revisiones de vista, oído, llevar calzado adecuado...). Se organizan talleres de



eta ingurunearen diagnostiko goiztiarra, zahartze-prozesua, ariketa fisikoak egitearen onurak, eta abar) eta praktiko bat (posturen higieena, nola jaiki eta oheratu, nola altxatu eroriko baten ondoren, eta abar). 2014an, 12 tailer egin ziren, 11 udalerritan, eta 640 lagun joan ziren. 2015erako, 15 tailer egiteko asmoa dago, 950 lagunentzat.

**5.6)** Batzordeko buruak adinekoei eragiten dieten trafiko-istripuei buruzko azterketa baten berri eman du; Segurtasun Sailak egingakoa da. Ondorioak honako hauek dira: adinekoak biztanleria osoan duten pisuaren arabera dagokien baino trafiko-istripu gehiagotan daude nahastuta; hiltzen diren adinekoen artean, gehienak (% 47) oinezkoak dira, gero gidariak (% 35), eta neurri txikiagoan, ibilgailu bateko bidaiariak (% 18); azken hamarkadan trafiko-istripuetan gertatu den heriotzen eta zauritu larrien jaitsiera adinekoen artean txikiagoa izan da; errepideetan, istripuak dituzten adineko gehienak gidariak dira, eta hirian, oinezkoak; harrapatzeak, nagusiki, egunez gertatzen dira, lanegunetan.

## **6. puntua. Galde-eskeak**

Aurreikusitako gai-zerrendako 5. puntuari dagokio. Ez da galde-eskerik egin. Beraz, bilera bukatutzat eman da, 14:00etan.

prevención de caídas, en colaboración con los ayuntamientos. Tienen una parte teórica (prevención, diagnóstico precoz de la vivienda y el entorno, proceso de envejecimiento, beneficios del ejercicio físico, etc.) y otra práctica (higiene postural, cómo levantarse y acostarse, cómo levantarse tras una caída, etc.). En 2014 se realizaron 12 talleres, en 11 municipios y acudieron 640 personas. Para 2015 hay previstos 15 talleres, para 950 personas.

**5.6)** La presidenta informa de un estudio realizado por el Departamento de Seguridad, sobre los accidentes de tráfico que afectan a las personas mayores. Las conclusiones son: las personas mayores se ven implicadas en más accidentes de tráfico que lo que les correspondería por su peso en el conjunto de la población ; de las personas mayores fallecidas, la mayoría (47%) eran viandantes, les siguen las personas conductoras (35%) y, en menor medida, otras ocupantes del vehículo (18%) ; el descenso en fallecimientos y heridos graves en accidentes de tráfico que se ha dado en la última década, afecta en menor proporción a las personas mayores ; las personas mayores que tienen un accidente, si es en carretera son conductores y si es en ciudad, peatones ; los atropellos se producen, fundamentalmente, de día y los días laborables.

## **Punto 6. Ruegos y Preguntas**

Corresponde al punto 5 del orden del día previsto. No se formulan ruegos y preguntas, por lo que se da por finalizada la sesión a las 14:00 horas.